

BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren balio-proposamena gazteei eta ikasleei zuzendutako aplikazio digital batean oinarritzen da. Aplikazio honen helburu nagusia da pertsona askok duten arazo nagusi bati irtenbidea ematea: zein lan edo lanbide aukeratu ez jakitea, gustuei dagokionez eta etorkizunean lortu daitekeen diru-sarrerari. Gaur egun, pertsona askok zalantza handiak dituzte gure etorkizun profesionalari buruz, informazio gehiegi dagoelako, orientazio falta dagoelako edo aholku profesionalak garestiak direlako. Gure aplikazioak arazo hori konpontzen du modu erraz, azkar batean.

Erabiltzaileak aplikazioan sartzen dira eta diru kopuru txiki bat ordainduta, formulario pertsonalizatu bat betetzen dute. Formulario horretan beraien interesak, gustuak, gaitasunak, ikasketa-maila eta etorkizuneko helburu ekonomikoak adierazten dituzte. Datu horiek oinarri hartuta, aplikazioak automatikoki lanbide egokienaren edo egokienaren soldata emaitza eskaintzen du, azalpen argi batekin: zergatik den lan hori egokia, zer ikasketa behar diren eta zenbat diru irabaz daitekeen gehienez. Horrela, erabiltzaileak bere interesak eta errenta-aukera handiena uztartzen dituen erabaki informatua har dezake.

Gure balioa lehiakideengandik bereizten duena da pertsonalizazioa eta berritasuna. Ez da orientazio orokor bat ematen duen test sinple bat, baizik eta erabiltzaile bakoitzarentzat egindako azterketa pertsonalizatua. Gainera, aplikazioa erabiltzeko oso erabilerraza da: diseinu sinple bat du erabiltzeko errazagoa izateko, hizkera ulerterraza erabiltzen du eta emaitzak berehala jasotzen dira. Horrek lana errazten dio bezeroari eta denbora asko aurrezten du.

Bestalde, gure aplikazioak arriskuen murrizketa ere eskaintzen du, izan ere, erabiltzaileak lan-aukera bat hautatu aurretik informazio zehatza jasotzen du, eta horrek etorkizunean okerreko erabakiak hartzea saihesten laguntzen du. Prezioari dagokionez, zerbitzua merkea da orientazio profesional pribatuarekin alderatuta, eta horrek bezeroa gure zerbitzuagatik ordaintzeko prest egotea eragiten du. Laburbilduz, gure balio-proposamena da orientazio profesional pertsonalizatua, azkarra, eskuragarria eta fidagarria eskaintzea, teknologia berrien bidez.